

## ISOk ez du onartu OOXML estandarra izatea

Egilea dooteo  
2007/09/04  
Aldaketa 2007/09/04

[Barrapunto.org gunean irakurria]: iraliaren 2an gertatu zen ISOren nazioarteko bozketa Microsoft-en OOXML formatua estandarra izateko onartzeko edo ez. Gaur arte emaitza ezkutuan gorde da.

Bost bat hilabete iraun du prozesu honek eta ISO erakunde barruan nahiko iskanbila sortu ditu Microsoft-en azpijokoak. Inoiz ikusi ez dena gertatu da: aurrez inoiz agertu ez ziren teknikari ugari gehitu ziren azken momentuetan formatuari laguntzeko. Suitzan, Hungarian eta beste hainbat lekutan irregulartasun ugari gertatu dira Microsoft-en 'sozio' edo 'partner'-ek eraginda. Suitzako bozketa anulatu egin zen arren, zikinkeriak gertatu diren beste hainbat estatutan onartu egin ziren bozketak. Gertatu diren irregulartasunak honako mapan ikus daiteke:

<http://people.ffii.org/~abarrio/openxml.info/isodis29500-votes-map-20070903a-big.png>

ISO bi bozketa burutu dira: JTC1 taldean gutxienez 21 boto lortu beharko zituen, baina 17 lortu zituen OOXML formatuak (gainditzeko botuen 2/3 baieztokoak izan behar dute, eta abstentzioak ez dira kontutan hartzen); ISO taldean, 68 kideetik 18rek ezezko botoa eman zuten, %26 eta ondorioz (arautegiak %25a baino gutxiagoa izatea baimentzen du) bozketa honetan ere ezezkoak irabazi zuen.

Dena den, datorren urtean (otsail inguruan) 2. bozketa edo bilera izango omen da, eta litekeena da Microsoft-ek estrategia fintzea OOXMLEk estandarra izatea lortzeko.

Beraz honek ez du esanahi software libreak bultzatzen duen OpenDocument formatuak (jadanik estandarra dena) irabazi duenik, antzeko kontuak luze jotzen baitute.

Bitartean gure esku dago ODF formatua erabiltzea eta zabaltzea :)